


Año XLIX. urtea

124 - 2017

Uztaila - abendua

Julio - diciembre



FONTES

LINGVÆ

VASCONVM

STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

*Erreseina. El iceberg
navarro. Euskera y
castellano en la Navarra
del siglo XVI*

Koldo ZUAZO



El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI

Peio J. Monteano

Iruña: Pamiela, 2017, 301 orr.

ISBN: 978-84-7681-991-3

Historialaria ez naizenez, ez ditut liburuaren alderdi guztiak neurtuko, baina historialaria ez den batendako ere badira bertan zenbait gertakari oso ageriko. Hasteko, Monteanok erabili duen dokumentazio ugaria. Bigarrenik, dokumentazio horretaz egin duen erabilera egokia. Liburu honek tan espekulazio eta alderdikeria gutxi ikusten da eta, aldiz, egileak zorroztasunez eta zuhurtziaz jokatu duela nabari da. Hirugarrenik, tankera honetako lanetan maiz gertatzen da

datuak bata bestearen ondoren pilatzea eta irakurlearendako ariketa nekeza eta gogaikarria izatea. Bada, Monteanok gizon argia dela erakutsi du: ardatz nagusiak zein diren ikusi, eta ardatz horien inguruan josi du bere kontakizuna. Ez da, beraz, jarraitzeko eta ulertzeko liburu zaila. Eta laugarrenik, darabilen hizkera ere ez da eragozpena. Hizkuntza dotorea eta landua darabil, baina, aldi berean, zuzena, xumea eta argia. Arrazoi hauek denengatik, euskararen iraganaz arduratuta dagoen edozeinendako da liburu baliagarria.

XVI. mendean hasten da kontakizuna eta, gehienbat, mende horretako gertakariak azaltzen dira, tarteka ondorengo garaietan izan duten oihartzuna ere aipatzen duen arren. XVI. mendean hasteak badu bere arrazoiak: orduan ugaritu zen dokumentazioa. Lapurretak, hilketak edo beste era askotako gertakariak zirela eta, auzitegietan egingako epaiketak izan dira datuak ateratzeko harrobia. Harrobi emankorra, ia ehun mila epaiketaren gaineko albisteak izan dituelako Peio Monteanok eskura. Epaiketa horietan esparru guztietako jendea agertzen da; baita herri xehea ere, idazten eta irakurtzen ez dakiena, eta epaiketa horien inguruan egin ziren ikerketetan ez balitz, beste inon agertuko ez litzatekeena. Dokumentu horiek Nafarroako gizartearen argazki egokia direla deritzo Monteanok, besteak beste, hango hizkuntzen egoera ere zuzen erakusten duena.

Gutariko askok Nafarroako alderdi zabala aspalditik oso erdaldun irudikatu dugu, baina XVI. mendearen amaieran bertan, nafarren erdiak euskaraz baizik ez zuela mintzatzen dio Monteanok, eta ez zuela ulertzen gaztelania (75. orr.). XVI. mendearen erdialdean 185.000 bizilagun zirela Nafarroan kalkulatu du, eta horietarik %60 eremu euskaldunean bizi zela (44. orr.).

Iruñeko argibide asko azaltzen dira, dudarik gabe hangoxia delako dokumentaziorik ugariena. Rodrigo Mendesen *Población general de España* (1645) ikerketan oinarrituta, Iruñea zela XVI. mendean Euskal Herri osoko hirigunerik haziena eta esanguratsuen esaten du: 5.000 familia zeudela estimatzen du. Aldiz, 1.200 ziren Bilbon, beste horrenbeste Gasteizen, eta 1.500 Donostian. Baionak XVI. mende amaieran, 4000 bizilagun inguru zituela aipatzen du (281. orr. 232, oin-oharra). Eta hauxe dio Iruñeko hizkuntza egoeraz (157. orr.): «El propio Ayuntamiento, en una sesión mantenida en 1604, reconocía que una gran parte de los vecinos y residentes no hablaban otra lengua que la vasca».

Horrekin lotuta, San Zerningo parrokian gertatutakoa aipatzen du (160 orr. eta hh.). 1645ean, bikario berria aukeratu beharra izan zelarik, hautagai bi aurkeztu omen ziren: bata aetza eta euskalduna eta Mendabiakoa bestea, hau erdalduna edo, behintzat, euskaraz behar bezain ondo mintzatzen ez zena. Eta hain zuzen, hizkuntza izan zen auzia erabakitze bidea (162. orr.):

La mayoría coincide en que solo las «personas de porte», es decir, caballeros, funcionarios, mercaderes y eclesiásticos, hablan castellano. La «gente común», que engloba a las familias de labradores, artesanos, amén de los criados y sirvientas, se expresa en euskera [...]. Pero el testimonio más autorizado y, en principio, objetivo lo proporcionan los propios clérigos que regentan las cuatro parroquias pamplonesas [San Cernin, San Juan, San Lorenzo eta San Nicolás]. Todos coinciden en que la mayoría de las confesiones se realizan en euskera.

Arrazoa dauka Monteanok: herritarrek apaizaren aurreko aitortzetan erabiltzen duten hizkuntza da lekukotasunik onena eta objektiboena. Izan ere, nork bere bekatuak pertsona inportante eta ez oso ezagunari –apaizari– esan behar dizkionean, beti du nahiago ondoen menderatzen duen hizkuntza baliatzea.

Elizarekin lotutako albiste hori aipatu dudanez, ikus dezagun zer dioen Peio Monteanok elizak Nafarroan izan zuen jokabideaz (95. orr.):

La actitud de las órdenes religiosas hacia la lengua vasca parece haber cambiado a lo largo del siglo XVII. En esta centuria, franciscanos, capuchinos y jesuitas muestran ya su preocupación por predicar en euskera, mientras que dominicos, agustinos y carmelitas persisten en su total desinterés. Así, pues, los efectos lingüísticos del clero durante los siglos XVI y XVII parecen contrarrestarse. Mientras que los párrocos locales contribuyeron a mantener el idioma, los monjes y frailes parecen haber contribuido a su erosión.

Elizak euskararekiko izan duen jokabidea maiz izan da eztabaidagai gurean. Badirudi zuzen dabilela Monteano. Hego Euskal Herrian ez da betikoa elizak euskararen alde egin duen indarra eta, gainera, aldeko indar hori ez du elizak bere osotasunean egin. Monteanok frantziskotarrak, kaputxinoak eta jesuitak aipatzen ditu aldekoen artean XVII. mendean, eta dominikoak, agustinoak eta karmeldarrak aurkarien sailean. Karmeldarren jokabidea aldatu egin zen gerora: haien arteko batzuk euskararen aldera lerratu ziren.

Antzeko bilakaera egin zuten jesuitek. Sortzailea gipuzkoarra izanda ere, ez zuten hasieran euskararen alde jokatu. Hauexek Monteanoren hitzak (153. orr.):

Aunque a partir del siglo XVIII los miembros de la compañía iban a destacar por predicar en euskera, en la época que tratamos sobresalieron precisamente por todo lo contrario. Los colegios de los jesuitas abiertos en los territorios vasco-hablantes se convirtieron en un factor castellanizador. Y es que, tanto en la enseñanza como en la confesión, la orden fundada por el guipuzcoano Ignacio de Loiola se servía únicamente del castellano.

Bada Monteanoren ikuspegiaren alde egiten duen lekukotasun bat, eta oso kontuan hartzekoa da, jesuita zelako esan zuena: Manuel Larramendi gipuzkoarra (1690-1766). Haren *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa* liburuan argiro salatzen da elizaren jokabidea:

Los que debieran estar más instruidos en lo dicho [euskara erabiltzean], son los que están menos y los que hablan el vascuence indignamente y sin rastro de inteligencia. Estos son los eclesiásticos, religiosos, caballeros y gentes acostumbradas desde chicos al castellano o a la gramática que aprendieron del latín (283. orr.).

[...]

Y aun ha llegado la infamia a valerse de estos predicadores para que en muchos pueblos, comunidades de monjas y cofradías, se tenga por cosa de menos valer el que se predique en vascuence, como que el vascuence es solamente lengua para aldeanos, caseros y gente pobre: diablura más perjudicial no ha podido introducirse en los púlpitos (287. orr.).

Baina Larramendik ere nabarmendu zuen elizako sail bat jokabide hori aldatzen ari zela XVIII. mendearen erdialdera, eta frantziskotarrak zirela aitzindari (291. orr.):

No se puede dudar que, de pocos años a esta parte, se predica en vascuence menos mal que antes, y que hay predicadores que en sermones morales predicaban absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común los misioneros en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz.

Harritzekoa da erlijio katolikoa hain sustraituta egon eta elizari hainbeste kide eman dion herrian bertako hizkuntzaren aurkako jokabide hori agertzea. Ikusi diren frantziskotar, kaputxino, jesuita eta karmeldarrez gainera, beste bi ordenatan baino ez da egon euskararen aldeko jarrera: beneditarretan eta pasiotarretan. Hegoaldeko monjetan eta Iparraldeko seroretan, berriz, ez da izan inolako jokabide euskaltzalerik.

Eliza alde batera utzita, bada Monteanoren liburuan nabarmendu nahi dudana azken gertakari bat: Nafarroa bere osotasunean erakusten du, eremu euskalduna bezala erdalduna, eta baita Nafarroa Beherea ere. Bidezkoa zen horrela egitea, Nafarroa Beherea Nafarroaren zati zelako XVI. mendean, baina historialari guztiek –eta berdin historialari ez direnek ere– ez dute beti gertakari hori aintzakotzat hartu.

Liburuaz daukadan iritzia hitz bitan laburtzeko, historiaz, hizkuntzaz eta Euskal Herriaren izaeraz jabetu nahi duenarendako liburu bikaina antolatu du Peio Monteanok. Euskal herrialde biren iragana aurkeztu zaigu bertan; beste bostena dago egiteko.

Koldo Zuazo

UPV/EHU

koldo.zuazo@ehu.eus